



Bergarako Udal Euskaltegia Dirulaguntzak

OINARRIZKO MATRIKULA: % 15eko beherapena izango du; langabetu, bekadun eta tarifa sozialaren onuradunek, berriz, % 25ekoa.

TARIFA SOZIALA: Tarifa soziala izango dute Oinarrizko Errenta/Etxebizitza gastuetarako diru-sarrera osagarria edo Gizarte Larraldietarako Laguntzen onuradun diren pertsonak. Horretarako, nahikoa izango dute Euskaltegian agiria aurkeztea. Halako gizarte-laguntzarik ez dutenek tarifa soziala eskatu nahi izanez gero, Udaleko Gizarte Ongizate Zerbitzura jo beharko dute, eta beharrezkoak diren izapideei ekin. Onuradunek **matrikularen % 40** ordainduko dute (oinarrizko matrikulari % 25eko hobaria aplikatu eta gero). Kurtso-amaieran, ordaindutako **kopuru osoa** itzuliko zaie.

BEKA: Matrikularen **erdia** ordainduko du (oinarrizko matrikulari % 25eko hobaria aplikatu eta gero). Beka-eskaria egiteko, etxeko bizikide-kopurua kontuan hartuta, gehienez honako diru-sarrera garbia (**likidazio-oinarria**) onartuko da:

Bizikide-kopurua	Diru-sarrera garbia	Bizikide-kopurua	Diru-sarrera garbia
1	13.236,00€	4	36.421,00 €
2	22.594,00 €	5	40.708,00 €
3	30.668,00 €	6	43.945,00 €

Hala bada, honako agiriak aurkeztu beharko dira **2021.10.15**erako:

- 2020ko errenta-deklarazioaren kopia edo egin ez izanaren zergatia adierazten duen ziurtagiria.
- Bizikidetza-agiria.

Bekadunei, ikasturte amaieran, ordaindutakoaren % 60 itzuliko zaie.

- FAMILIA BEREKO KIDEAK:** Elkarrekin bizi diren familia bereko bi lagunek izena emanaz gero, 1'5 matrikula ordainduko dute; hiruk emanaz gero, berriz, 2 matrikula. Idazkaritzara jo beharko dute ordaindu beharreko kopurua zehazteko. **2021.10.15a baino lehen** ekarri beharko dituzte ordainagiriak eta bizikidetza-agiria.
- ERRETIRATUAK eta FAMILIA UGARIAK:** Matrikularen ordainagiriarekin batera, honako agiriak aurkeztu beharko dituzte **urriaren 15erako:** familia ugarietako kideek, **familia ugarien txartela;** eta erretiratuek, **pentسیونista-txartela**. Kurtso-amaieran, ordaindutako kopuruaren % 60 itzuliko zaie.
- LANGABETUAK:** Matrikularen **erdia** ordainduko dute. Ordainagiriarekin batera, **Bizitza laborala** deritzon agiria aurkeztu beharko dute **urriaren 15erako**.
- IKASLEAK:** Matrikularen ordainagiriarekin batera, **Ikasle-txartela** aurkeztu beharko dute; amaieran, ordaindutakoaren % 50 itzuliko zaie.
- BIRMATRIKULAK:** Dagokien tarifaren %75 ordainduko dute, beti ere aurreko ikasturte-amaierako dirulaguntza jasotzeko baldintzak bete badituzte.
- Gainerako ikasleei, ikasturte-amaieran, ordaindutakoaren %25 itzuliko zaie.

Dirulaguntza hauek jasotzeko, nahitaezkoa da Bergaran erroldatuta egotea, ikasturtea amaitzea eta % 85eko asistentzia izatea.

Justifikatu nahiz justifikatu gabeko hutsegiteak gainerako %15ean sartuko dira. Itzuli beharreko kopurua aurrekontuetan esleitutakoa baino altuagoa izanez gero, banaketa proportzionala egingo da.